



**EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 23koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, oposizio-fasean izangaiek guztira lortutako kalifikazioak argitara ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)**

---

Oposizio-faseko probak amaitu eta epaimahaiek emaitzak argitaratu ondoren, izangaiek aipatutako fasean guztira lortutako kalifikazioak argitara ematen dira.

Horrenbestez,

### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Argitaratzea oposizio-fasea gainditu duten izangaiek guztira lortutako kalifikazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)

**Bigarrena.-** Oposizio-faseko guztira lortutako kalifikazioen zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Oposizioko nota» – «Alfabetikoki» / «Puntuz».

**Hirugarrena.-** Oposizio-fasea gainditu ez dutenak notarik gabe agertzen dira zerrenda horretan, eta beraien nota kontsulta dezakete «Norberari egokitutako kontsulta»-ren bidez – «Puntuazioak».

**Laugarrena.-** Guztira lortutako kalifikazioen aurka ez dago errekurtsua jartzetik; interesa duten izangaiek berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 11 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 23an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO